

TOKIKO EMAKUME HAUTETSIEN MUNDUKO BILTZARRA

Tokiko eta Eskualdeetako Gobernuen Parisko Agenda Globala, Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizitzako Berdintasunerako

Geuk, tokiko emakume eta gizon hautetsiak, 2013ko urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean Parisen bilduta, gizartearen eremu guztietako hainbat emakume eta gizonekin batera, Paris Hiriaren eta HTGBren Genero Berdintasunerako Batzorde Iraunkorraren ekimenez, HTGBren Eskualde Sailen laguntzarekin eta NBE Emakumeak-en sostengiarekin (Nazio Batuen Erakundea Genero Berdintasunerako eta Emakumeen Ahalduntzerako).

1. **Gogoan izanda** emakumeek jarraitzen dutela ordezkariak mugatua izaten bizitza politiko, ekonomiko eta sozialaren eremu guztietan, ordezkari txikiarekin munduko toki askotako erabakitze-organismoetan;
2. **Konbentzituta egonda** emakumeek tokiko erabakietan parte hartzeak modu esanguratsuan indartzen dituela gizartearen oinarri demokratikoak, eta lagungarria dela garapen emankorrerako;
3. **Kontuan hartuta** gizateriak aurrez aurre dituen arazo eta erronkak globalak direla baina tokiko mailan heldu behar zaiela;
4. **Azpimarratuta** tokiko autogobernu demokratikoak funtsezko rola jokatzen duela munduko komunitate guztietako hiritar guztien justizia sozial, ekonomiko eta politikoa bermatzeko, eta gizartearen kideak, emakumeak zein gizonak, gobernantza-prozesu guztien baitan sartu behar direla;
5. **Jakitun egonda** tokiko mailak berebiziko potentziala duela irtenbide berritzaile eta eraldatzaileen sustapenean, eta emakumeen sen berritzaileak funtsezko rola jokatzen duela gizartean;
6. **Konprometituta egonda Pekingo Ekintza Plataforma, Diskriminazio forma Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW), MGHak eta NBE Emakumeak-en Bide-orria inplementatzearekin;**
7. **Oinarritzat hartuta** gure nazioarteko mugimenduak metatutako ezagutza, **Tokiko Gobernuo Emakumei buruzko Mundu Adierazpenak eta Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizitzako Berdintasunerako Europar Gutunean** bildutako balio eta printzipioek inspiratuta;
8. **Emakumeen estatusa hobetzen laguntzeko eta berdintasuna eta erantzunkidetasuna mundu osoan sustatzeko konpromisoa hartuta;**

Tokiko eta Eskualdeetako Gobernuen AGENDA GLOBAL bat eratu dugu Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizitzako Berdintasunerako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren errespetua sustatzen duen tresna estrategiko bezala, honako puntu hauek bereziki landuz:

I. Emakumeek parte-hartze handiagoa izatea tokiko erabakietan, ordezkari itza paritarioa bermatzeko eta garapen agenda arrakastatsua lortzeko 2015 urtearen osterako.

Eskatzen dugu:

1. Emakumeak erabakiak hartzeko ekintzetan sartzea, MGHen helburu garbi bezala.
2. Alderdi politikoei, emakumeak sar ditzatela beren erabakitze-organo guztietan eta genero berdintasuna eta paritatea errespetatzen ditzatela izendapen eta hautaketa prozesu osoan;
3. Alderdi politikoetan erabakitze-ahalmena duten emakumeek gainerako emakumeak mugitu ditzatela eta laguntza eman diezaietela eremu politikoan integratzeko, zailtasunei erantzuteko eta emakumezkoen lidergoa sustatzeko;
4. Gobernuak berdintasunerako mekanismoak ezar ditzatela, ordezkari itza paritarioa lortu ahal izateko;
5. Tokiko gobernuak Berdintasunerako Batzorde Iraunkorrak eratu eta indartu ditzatela;
6. Tokiko gobernuen elkarteek lankidetzan estuan jardun dezatela emakumeen GKEekin eta sektore pribatuarekin, desberdintasunen problematikei aurre egiteko xedez;

II. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak lehentasuna izan behar du tokiko politika publikoen agendan, eta baita emakumeen hobekuntza eta ahaldunderako lagungarriak diren zerbitzu publikoen prestazioan ere.

Eskatzen dugu:

1. Emakumearen kondizioari kalte egiten dioten testu juridikoak aldatzea eta legeak eraginkortasunez inplementatzea;
2. Emakumeek parte hartu dezatela zerbitzu publikoen garapen, kudeaketa eta ikuskeran, eta haien beharrak islatuta egon daitezela eta kontuan har daitezela plangintzaren eta aurrekontuak prestatzeko lan fase guztietan;
3. Zerbitzu publikoek ez dezatela jarraitu emakume eta gizonen estereotipoak betikitzen;
4. Tokiko gobernuak ahaldundera gehigarriak egin ditzatela emakumeen enplegua eta prestakuntza egokia sustatzeko;
5. Tokiko gobernuak rol garrantzitsua jokatu dezala tokiko zerbitzu profesionalak eta arreta-zerbitzuak eskaintzeko hurrei, hirugarren adineko pertsonen eta behar espezifikoak dituzten pertsonen, emakumeek izan ohi duten lan-karga handia aritzen laguntzeko, horrek oztopatzen baitu gizartearen jokatu behar duten rola osoko garapena;
6. Emakumeen independentzia eta haien parte-hartze aktiboa bizitza ekonomikoan ahalbidetzen duten finantziario-mekanismoak garatu daitezela;
7. Genero ikuspegia ereduizat ezar dadila tokiko eta eskualdeetako politiken definizio eta inplementazioan.

III. Mundu seguru bat, batez ere emakumeentzat, zeren haiek izaten baitira, betidanik, era guztietako indarkeria gehien pairatzen dutenak.

Eskatzen dugu:

1. Parlamentuek legeak egin ditzatela emakumeen aurkako indarkeria eta jazarpenari buruz;
2. Gobernu zentralak eta tokiko zein eskualdeetako gobernuak programak garatu ditzatela eta baliabideak bideratu ditzatela emakumeak indarkeriatik babesteko;
3. Tokiko politika publikoek mugikortasun seguru bermatu dezatela, eta baita lurraldearen leku guztietarako segurtasunez iristeko bidea ere;
4. Haurrak hezteko kanpaina publikoak abiatu daitezela, era guztietako indarkeria eta abusu fisiko, psikologiko eta seksualak saihesten duen garrantzia nabarmentzeko;
5. Gobernu zentralak eta eskualdeetako zein tokiko gobernuak genero indarkeriari buruzko prestakuntza berezia eman diezaiotela pertsonal esanguratsuari, batez ere polizia, jardura eta jokabide estereotipatuak ezabatzen laguntzeko.
6. Emakumeen egoera aitortu dadila gatazka prozesuan edo gatazka osteko prozesuan dauden herrialdeetan;
7. Hedabideak modu arduratsuan inplika daitezela emakumeen aurkako indarkeria eta jazarpenari aurre egiteko borrokan.

GEUK, HTGB-KO KIDEOK, MUNDU OSOKO TOKIKO ETA ESQUALDEETAKO GOBERNUAK ORDEZKATUZ, PARISKO AGENDA EZARTZEKO ETA BERAREN ARABERA JARDUTEKO KONPROMISOA HARTZEN DUGU, ETA, HALABER:

1. Dei egiten diegu HTGBri eta beraren Eskualdeko Sailei, gure konpromisoak berenganatu ditzaten eta adibidea eman dezaten, emakumeei eta gizonei parte-hartze orekatuagoa emanaz beren erabakiak hartzeko organoetan; helburua da parte-hartze paritarioa lortzea beren gobernu-organoeetan, HTGBren baitan, 2015 urterako;
2. Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua erabakiak hartzeko prozesuetan errazten duten neurriak eta haien inguruko eztabaida publikoa sustatzea, erabakiak hartzeari dagokionez, tokiko eta eskualdeetako gobernuek paritatearen alde hartutako konpromiso publikoa aldarrikatzeaz batera;
3. Berdintasunaren aldeko konpromisoa toki eta eskualde mailan sustatzen duten ekimenak eta programak garatzea, *Tokiko Gobernuko Emakumeei buruzko Mundu Adierazpena* eta *Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizitzako Berdintasunerako Europar Gutuna*, MGHak eta NBE Emakumeak-en Bide-orria oinarritzat hartuta;
4. Nazioarteko elkartasuna sustatzea, gobernu zentralen eta eskualdeetako eta tokiko gobernuen arteko lankidetzaren indartuz, tokiko eta eskualdeetako gobernuen nazioko, eskualdeko eta nazioarteko elkarrekin eta gizarte zibilaren laguntzarekin, emakumeen parte-hartze politikoak dituen oztopoak gainditzeko asmo eta helburuarekin, arreta berezia zuzenduz garapen bidean dauden herrialdeei, herrialde urrakorrei eta gatazka egoeran dauden herrialdeei;
5. Generoaren eremuko ezagutza garatzea eta handitzea, biltzen diren estatistikak generoaren arabera desagregatzen direla eta ikuspegi horretatik ere aztertzen direla bermatuz;
6. Baliabideak mobilizatzea ikerkuntza akademikoa genero ikuspegiz gauzatzeko, genero berdintasuna tokiko gobernuetan bultzatzeko erabili ahal izateari begira;
7. Lankidetzaren ekimenak garatzea gizarte zibilean, batez ere emakumeen oinarriko taldeetan, emakume parlamentarien artean, NBEko agentzietan eta sektore pribatuan, tokiko eta eskualdeetako gobernuen prestakuntza eta gaitasuna sustatzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez;
8. Agenda honen inplementazioa eta garapena sustatzea, munduko alde bakoitzeko errealitateen espezifikotasun eta errealitateetara egokituta;
9. HTGBren beste eskualde batzuk genero berdintasunerako gutunak garatzera bultzatzea, Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizitzako Berdintasunerako Europar Gutuna oinarritzat hartuta.